



# Zer gertatzen da negoiazio kolektiboarekin?

Lau hilabete Osakidetzako mahai sektoriala bildu ez dela; mahaia bertan behera geratu da Zapateroren Gobernuaren herstura plan dela bide, egoera kezkarria bihurtu delarik.

Abiapuntu-egoera korapilotsua zen: Euskal Funtzio Publikoaren mahaiaren akordio bat. Sinatzaileen arabera, akordio honek Administrazioaren elkarrizketarako garai berri bati hasiera ematen zion, gure ustetan hanka sartzea izan zen. Ondoren, Administrazioaren proposamenek garbi eta argi adierazten zuten ez zegoela inolako asmorik sektoreak pairatzen dituen arazoei benetan heltzeko eta soluziobide duinik emateko, soluzio-bide duina langileentzako zein kalitatezko zerbitzu publikoa bermatzeko. Negoiazioa egunik zehaztu gabe atzeratzeak Gobernu zentralarengatik, egoera larriago egiten du.

Gogora dezagun Administrazioaren proposamena:

- Osagarri gehiago larrialdi, erreten, AJP, eta abarrentzako eta zehaztu ez den produktibitate-osagarri berri bat; ziur asko, osagarri berri honek diskriminazio berriak ekarriko dituela.
- Prestakuntza programak eskaintzen dituzten sindikatuek ordainduta eta gauzatuak, bezerokeria suspertzen duen finantziario berria sindikatu batzuentzat.
- Kontratazioan, dekretu berri baten negoiazioa eta 3.900 lanpostuko hiru LEP berri, baina plantilla handitu gabe.

Proposamen honek ez ditu aldarrikapenak asetzen. Gogoratu sindikatu guztiek adostu zituztela aldarrikapenak eta hauengatik azken urtetan eman den grebarik garrantzitsuenetako bat egin genuela:

- Garapen profesional ez diskriminatzaile bat. Jaso ez den prestakuntza-baremo baten arabera etengabe ukatua izan dena, atzerapenekin eta ez-betetze zabalekin: behin-behinekoak, finkoak, azken LEPa 2008ko uztailean, erreklamazioak eta atzerapenak IV maila.
- Plantillaren benetako finkatze eta gazteagotzea.
- Soldata-abanikoaren murrizketa kategoriatan desberdinen arteko soldatak orekatzeko.
- Autokontzertazioak, kontzertazioak enpresa pribatuekin eta lehen mailako arretak Osakidetzaren ga-bezia estrukturalaren ardatzak izaten jarraituko dute, kalitatezko osasun eredu publikoarekin batera.

Eta larriago dena, Osakidetzak ez ditu azken grebaren ondorioz sinatutako akordioak bete enplegua sortzeari dagokionean, eta egun ez du horretaz ezer entzun nahi.

Aurrekoari, emakumeen osasunaren prebentzioan eman diren murrizketak, EHAEan larunbatetan emango den 50 anbulatorio gorakoen itxiera eta medikuntza espezializatuaren birmoldaketa Araban eta hedaturaz sare osoan, eta abar gehitu behar zaizkio.

Zer egin egoera hau dela-eta? Sindikatuok ahalegin bat egin behar dugu pintza honetatik ateratzeko, behartuta gaude, eta ESK-k baieztatzen du plataforma unitarioak berreskuratuko dituzten baldintzak sortzeko duen konpromisoa, baita ere hitzarmen duin baten defentsan Osakidetzako langileen parte-hartzea suspertzeko.